



## Lau giltzarrapoek preso

Oihana Abasolo Pérez

EUSKARA NARRAZIOA 14-16 URTE

2. Akzesita

Desberdina naiz, bai, badakit.

Ez naiz gizarteak irudikatzen duen pertsona.

Zuri berdina gertatuz gero, besteak bezalakoak ez zarela sentituz gero, hau zuretzat da; espero dut lagun diezazun.

Aldiz, ni bezalakoak ulertzen ez badituzu, ez ezazu itxi liburua. Jarraitu ezazu irakurtzen. Orain nire bizipenak kontatuko baititut, ni bezalakoak garenok bizi eta sentitzen duguna ezagutu dezazun.

Ahaztu gabe, pertsona bakoitza mundu berri bat dela; ortzadarraren koloreak bezala, bata bestea-rengandik ezberdina bezain polita da. Alegia, hau nire bizipena da; eta beste batena, nirearengandik oso urrun izan daiteke. Baina hori da berezi egiten gaituena; ez al duzu uste, guztiz grisa den munduak, kolorerik gabeko gizarteak, ederra izateari utziko liokenik?

Nire izena Aritz da, mutil transexuala naiz. Eta hau, nire istorioa da:

*"Guztiak du bere hasiera"*

–Aitatxo, mutila naiz!

–Baina zer diozu polita? Zu neska zara –erran zidan aitak–. Arane duzu izena.

Bost urte baino ez nituen nire bihotza kobazulo ilun batean hondoratu zenean. Haitzulotik ateratzea ezinezkoa egiten zitzaion; eta kanpoko argia jaso ezin zuela eta, ilundu zen. Esan liteke, nire bihotza giltzarrapoz beteriko kate sendo batek leize sakonean edukitzen zuela. Osotara lau giltzarrapo ziren.

*Lotsa.*

*Beldurra.*

*Aurreiritziak.*

*Onarpena.*



Tamalez, ezinezkoa egiten zitzaion horiek igarotzea. Giltzarrapo bakoitza apurtu ahal izateko nire burua nolakoa den onartu eta maitatzen ikasi behar nuelako. Eta nik, aldiz, ez nuen nire burua ezagutzen; edo hobe esanda, ez nuen ezagutu nahi.

*Lehenengo giltzarrapoa: Lotsa.*

Nire bizitza guztiz aldatu zen 2019ko udazken haizetsu batean. 16 urte bete berri nituen, eta soinketa lehenengo orduan geneukan. Orduan, irakasleak, Peiok, jolas bat egingo genuela esan zigun. Bi taldetan banatu gintuen, neskek zelaiaren eskumara eta mutilak ezkeraldera. Elkarren kontrako lehiaketa bat egin beharra genuela adierazi zigun.

Une horretan, zelaiaren erdialdean nintzela, nire burua hutsik geratu zen. Eta berriro, duela hamaika urte sentitu eta nire barrenean indar osoz ezkutatu nuena askatu egin zen. Nire gorputza eta ni neu bat ez gentoztela somatu nezakeen, onartu nahi ez nuen deskonexioa bueltan zen. Oraindik hitzen bidez azaltzea ia ezinezkoa egiten zaidana; plazaratu nahi ez nuena, ez besteen aurrean. Nitaz lotatu egin nintzen, zergatik jaio nintzen honela? Min egiten zidan egiak.

–Arane, zer egiten duzu zelai erdian? –galdetu zidan Peiok–. Eskumara joan behar duzu.

Betidanik futbol zelaia jolastoki onenetako bat iruditu zitzaidan. Hala ere, une horretan kartzela bera iruditu zitzaidan. Nabaritu nezakeen kateek eskuinaldera tira egiten zidatela. Beldur nintzen, baina besteen begietan kateak gardenak ziren. Ni nintzen ikus nitzakeen bakarra.

*Bigarren giltzarrapoa: Beldurra.*

Nekatuta nintzen jendarteak onartzen dituen arauak jarraitu behar izateari. Baina preso nintzen, kateak nire gorputza indarrera eramaten ari ziren. Begiak itxi, eta benetan nor nintzen pentsatu nuen. Mutila. Hori zen eta da egia bakarra. Baina beldurrak kaiolara itzularazi nahi ninduen, ni neu isilarazi. Zergatik ordea? Ezin ahal nintzen askea izan? Hala ere, argi izan nuen ez nintzela izango kaiolan jarraituko zuen txoria. Ni izanen nintzen hegalak astindu, eta haizeteei aurre egingen ziona. Libre, erortzeari beldurrik ez diona. Esaten duten bezala: “erortzen ez dena inoiz ezingo da igo”.

Urratsa emana nuen. Zelaiaren ezkeraldera joana nintzen, ez zegoen atzera joaterik. Ez nintzen klasekideei begiratzen ausartzen, ez nuen beraien erantzuna jakin nahi. Hala ere, erabaki nuen ausarta izan behar nuela. Eta burua goratu nuen, beraien begiradei aurre egiteko prest nintzen.

*Hirugarren giltzarrapoa: Aurreritziak.*

Gelakide guztiek harriturik begiratzen ninduten. Eta jarraian barrezka hasi ziren.

–Arane, hori ez da eskuina –esan zidan burlati Lidek–. Ez esan oraindik ez dituzula bereizten? Gorri-gorri jarri nintzen, ez zuten ulertu. Hain gertu ikusi nuen nire leizearen aterabidea ezen oharzerako berriz desagertua zen. Zergatik da hain zaila bizitza? Umiliaturik, gizarte honek inposatzen zidan lekura joan nintzen.

Egun hartatik aurrera gero eta okerrago nintzen. Irribarre batez ezkututzen nituen nire sentimenduak; eta bakardadean kanporatzen nituen nire beldurrak eta penak. Hogei urtez gorde nuen egia. Nerabe guztiei bezala nire gorputza aldatzen hasi zen. Gorroto nion nire buruari, nire sexuari. Ispiluan begiratzen nintzen aldi oro ezinegonak garaitu egiten ninduen; hain gogorra egin zitzaidan nire irudiari aurre egitea, non ia ezinezkoa egiten zitzaidan aurrera egitea. Behin baino gehiagotan pentsatu izan nuen onena nire bizitzari agur esatea izango litzatekela, amore ematea, horrela ez bainuen gehiago sufrituko.

Nik erabaki ez nituen organoek erabakitzen zuten nor izan behar nintzen ni. Eta hartaz ohartu nintzen unean, ulertu nuen jendartea ez dela batere koherentea. Betidanik esaten dute garrantzitsuena barrukoa dela; baina gero ez diote besteen bihotzari jaramonik egiten. Itsu gara besteen arazoetan; eta gorrak besteen laguntza eskaeretan. Krudelak gara benetan pertsonok.

*Laugarren giltzarrapoa: Onarpena.*

Gaur askea naizela esan dezaket. Poliki-poliki, nire burua maitatzen ikasten ari naiz. Dagoeneko ez naiz Arane, Aritz dut izena. Baliteke batzuek nor naizen ulertu nahi ez izatea. Baina

besteek bezala, ni horrelakoa naizela ikasi beharko dute. Jada, onartu dut nire jatorria. Mutila naiz, eta nire organoek ez dute finkatzen nire sexua. Ni naiz nor naizen erabaki dezakeen bakarra. Orain hormonak hartzen ari naiz; eta egia esan, prozesua nahiko gogorra da. Hala ere, jada ikasi dut ezin dudala atzera egin. Aurrera egin ezean aukera galdu dezakezu eta. Eta hori betiko damutuko zaizu; nik gutxienez, hala egin nuen. Hala eta guztiz ere, ez dizut gezurrik esango. Hasiera batean, nire ingurukoek ez zuten batere ondo hartu. Batez ere, nire aitari kostatu egin zitzaion onartzea. Halere, duela bi hilabete nire izenaz deitu ninduen; hala esan zidan: "Aritz, pistu ezazu telebista". Nik baietz erantzun nion. Une horretan negar batean hasi nintzen, zoriontsu izan nintzen benetan. "Ez ezazu negarrik egin, bestela ezin dut entzun zer esaten duten", erantzun zidan maitekiro. Eta hala amaitu genuen, elkarrekin, futbol partida ikusten, begiak bustita genituelarik; nahiz eta ez genuen hitz egin, isiltasun hartan esan beharreko guztia gure bihotzek esanda zuten jada. Ekaitzaren amaiera azkenik iritsia zen.

"Eskerrik asko, aita."

Batzuetan beldur naiz iluntasunak berriz leize barruan harrapatuko nauen. Baina beno, aurkitu izan ditut egun goibelak ortzadarren kolorez margotu izan dizkidaten pertsonak, nire bihotza askatzen lagundu didatenak. Eta nik, beraiek ni urgatzi ninduten bezala zu babestu nahi zaitut. Beraz, desberdina bazara, ez ezazu beldurrik izan. Baliteke, gu geu, beraiek bezalakoak ez izatea, baina horrek egiten gaitu berezi bezain polit. Horregatik, olerki hau idatzi dut zuretzat. Egun ilunak argitu diezazkizun.

*Sutan dagoen arrosa naiz,  
barrenak arantzak jaten ari zaizkionak,  
bere zutoinak giltzapetu izan dituenak.  
Zergatik egiten du halako mina egiak?*



*Esaidazu zoratuta naizela, bai, badakit;  
baina hala da, nigatik da hau guztia.  
Baina zuretzat jolasa baino ez naiz,  
aspertzean zaborrera botako dudana.*

*Ez dut hori sentitu nahi, sufritzen dut,  
baina sentimenduek jarraitzen naute;  
alde egin nahi dut, errealitatera itzuli,  
baina zuen aurreritziek lotu egiten naute.*

*Hala ere, lortuko dut arantzak askatzea,  
egun batean izango naizen arrosa izatea.  
Gorria bezain askea, eta beldurrik gabea,  
bere burua maitatzen ikasiko duena.*

Eskerrik asko ausartak zareten horiei guztiei, egia gehiago izkutatzen ez duzuenoi.

